

2021eko uztailaren 19ko Herriko Kontseilua

Hor zirenak: DARGUY, DUHALDE, ECHEVERTZ, ETCHEVERRY, OXARANGO, PEREZ, SABALOUÉ andreak eta BISCAY, GASTAMBIDE, HERNANDEZ, MONGABURE, OTEIZA, PARACHOU jaunak

Ezin etorria jakinarazia zutenak: BARNECHE, BARBIER

Bilkurako idazkaria: OXARANGO Maité

1. Baserrialdeko elektrifikazio obren onartzea eta finantzaketaren hautatzea Agerria etxera heltzen den lurpeko hedapen programarako.

Pirinio Atlantikoetako ENERGIA SINDIKATUAK ikerketa bat egin du hedapen obrak egiteko Maritxu Duguineren Agerria etxea hornitzeko.

Energia sindikatuko jaun lehendakariak Aiherrako herriari jakinarazi dio obrek zenbat kostako zuten. Obrak Hazparneko COREBA enpresak ditu eginen.

Jaun auzapezak zehaztu du obra horiek Baserrialdeko Elektrifikazio Programan sartuko direla (FACE AB - 2021eko lurpeko hedapena), eta proposatu dio Herriko Kontseiluari obren zenbatekoa onartzea eta finantzamenduaren bozkatzea.

Obren zenbatekoa BEZa barne: 4 808,99 € + gainerako gastuak: 1 026,30 € = **5 835,26 €**
Obralaritza laguntza, obralariak eta ustekabekoak, notario agiriak, SDEPAren kudeaketa gastuak

Herriaren parte hartzea, jabeak ordaindurik: 1 151,02 €

2. Baserrialdeko elektrifikazio obren onartzea eta finantzaketaren hautatzea ponpategira (harrobira) heltzen den aireko hedapen programarako.

Pirinio Atlantikoetako ENERGIA SINDIKATUAK ikerketa bat egin du hedapen obrak egiteko harrobian egitekoa den ponpategia hornitzeko.

Energia sindikatuko jaun lehendakariak Aiherrako herriari jakinarazi dio obrek zenbat kostako zuten. Obrak Hazparneko COREBA enpresak ditu eginen.

Obra horiek Baserrialdeko Elektrifikazio Programan sartuko dira (FACE AB - 2021eko aireko hedapena), eta jaun auzapezak proposatu dio Herriko Kontseiluari obren zenbatekoa onartzea eta finantzamenduaren bozkatzea.

Obren zenbatekoa BEZa barne: 3 312,22 € + gainerako gastuak: 469,23 € = **3 781,45 €**
Obralaritza laguntza, obralariak eta ustekabekoak, notario agiriak, SDEPAren kudeaketa gastuak

Jabearen parte hartzea: 745,25 €

3. Herriko Etxearen jarrera A1412 lursailaren urbanizatzeari buruz

Batzorde bilkuretan, Herriko Kontseiluak HTHPko UB gunean den lursailaren urbanizatzeari kontrolatzeko xedea agertu du (bereziki HTHP apailatzean, eta berrikiago).

Lursail horren urbanizatzea, eta, bistan da, ondoko urteetan urbanizatzekoak diren herriko lursail guziena.

Urbanizatzea ahal bezain ontsa menderatu nahi genuke, eta neurri bereko eta gune bereko beste lursailetan aurreikusiak diren egokitze proiektuak denborarekin lasaiki aitzinera eraman.

Auzapezak Herriko Kontseiluari xede hori onartzea galdegin dio, haren burutzeko desmartxa administratibo guziak abian ezartzeko (lehentasunez erosteko eskubidea, LTEPri dei egitea).

4. Gainerako gaiak

Hitzordu zenbait: Herritarren arteko kafea; herriko aldizkariaren preparatzea agorri bukaerako; urriaren 2an, arratsaldearekin iraganen den merkatuaren antolaketa.

Gazteen finala pilota plazan, uztailearen 24an, eta aperitifa antolatzaileek eskainirik.

Aldaketak Gozategian kudeatzaileei dagokienez.

Quaden eguna agorriaren 8an (ibilaldia), ondoko beste 4 herrirekin batean.

Merkatu publikoa Herriko Etxeko obren karietara, eskaintzak agorriaren 6ko aurkeztu behar dira.

Beltzategia proiektuaren segitzea, obralari bati baino gehiagori dei egitea

DNLOGZBren ezezkoa Minjou eta Dacharyren obra-hondakinen lurperatzeko – Jakinarazte gutuna.

Merkatu publikoa errepideen egiteko; emaitza agorriaren 5ean.

Harrobiarendako izena atzeman behar da; herritarrei dei egitea.

Bilkura 21:30ean bururatu da

Auzapeza, Arño Gastambide

A handwritten signature in black ink is written over a circular official stamp. The stamp is blue and contains the text "MAIRIE DE AUZAPEZA" at the top and "Pays des Pyrénées Atlantiques" at the bottom, with a small star on the right side.